

Lehenengo solairua

Eguneroko errutinan, ezarritako ordenean eta harremanean babestutako bi ahizpa lasai asko bizi dira beren betiko etxebizitzan. Norbaitek atea jo du. Nor ote da? Badaezpada ere hobe ez irekitzea. Gutun bat ate azpitik agertzen da. Beraien BIZITZA aldatuko al da.... ala ez!!!



Bigarren solairua

Bi lagun, Margarita eta Trinidad, urte amaiera ospatzeko elkartzen dira. Agian datorren urtea hobe izango da. Norbaitek atea jo du. Beraien laguna Nina ote da? Jendartean gero eta ohikoago den zuhurtziak eta beldurak zera sortzen dute: paranoia, zentzugabekeria eta absurdua, baita krudelkeria ere. Komedia beltz honek umorea eta gizakiaren alderik ilunenari buruzko gogoeta batzen ditu, dibertsioa salbatzeko dena justifikatzeko gai dena.

